

AUZOZ AUZO: MAALA ETA FERRERIASKO JIAK

Arrasate

P R E S S

2001.eko
urtailaren 20a
550. zenb.



Etxeko konponketak

Aroztegia

Armairuak, hormako armairuak,
ateak, oholtzak, leihoak etab.



Garagartza auzoa, 5-2.
(Bixiena Baserría) • ARRASATE
Tel.: 943 77 02 43
Mugikorra: 608 77 40 83

Markoalde, 5-7 • BERGARA
Tel.: 943 76 08 10

Igeltzaritza



Izcue Irurzun

Igeltzaritza orokorra
Etxeen berrikuntzak
Sukaldeak, komunak...

Tel.: 943 77 04 77 / 607 87 91 66

Leihoak



ARGI PLASTIK

PVC, aluminio termiko
eta poliuretanozko
leihoen lantegia.

Erakusketa eta lantegia: Zigarrola, 1- Pab.
Tel./ Faxa.: 943 77 11 30 - 943 79 62 18

Elektrizitatea

ARANZABAL



KOOP. E.

Instalakuntza elektrikoak • Antena kolektiboak

Zerkaosteta, 15

Tel.: 943 79 68 21 / 670 57 53 83

Iturgintza

Aretxabaleta

Durana, 16 behea (Aretxabaleta)

Tel.: 943 79 17 53



ARRASATE

Elektrizitatea

Instalakuntza eta muntatze elektrikoak

24 orduko zerbitzua: 610 57 88 77

Gipuzkoa etor., 37 • Tel.: 943 79 65 93



Loramendi 7, 2 behea
Tel.: 943 77 08 88

**Iturgintza • Bainuak
Gasa • Berogailuak**

Margoak

APAIN
MARGO ETA APAINKETA

Matiena, 3-1

Tel.: 943 79 61 56 / 689 04 91 17

Eraikuntzak

Berecibar

Santamaina, 34 • Tel.: 943 79 09 63



Gipuzkoa etorbidea, 39 behea • Tel.: 943 77 01 85

Txorrota

Nafarroa etorbidea, 5 atzealdea
Tel.: 943 77 17 13 / 607 26 04 17

JOVI

10.000 KOLORETAKO MENUA

Ferrerias, 36 behea • Tel.: 943 79 12 87

Giltzak



• Zerrailagintza • Giltzen kopia • Zapata eta
aterkin konponketa • Artazi, laban eta abarren
salmenta eta zorrozketak • Larruzko gauzak
• Pantografo bidezko grabaketa

Eroski merkataritza zentroa, 1

Tel./Fax: 943 79 76 03

Gida honetan azaldu
nahi baduzu,
deitu 943 71 23 91
telefonora

urteurrenak



Obra-baimena Osakidetzari

■ 73. zenb.

1990eko uztailaren 20an idatzi genuen...

1990eko uztailaren 20an idatzi genuen...
Gobernu batzordeak baimena eman zion Osakidetzari eskualde ospitalean eta anbulatorioan berrikuntzak egiteko. Berrikuntzak ospitalearen beheko solairuan eta anbulatorioko hirugarren solairuan egin gura dituzte. Duela hilabete, Udalak obrak egiteko baimena ukatu zion Osakidetzari, arazo urbanistikoak zirela medio. Gero, Osakidetzak aldaketak egin eta baimena jaso du.

Oraingoz garabirik ez

■ 73. zenb.

1990eko uztailaren 20an idatzi genuen...

Udalak ekainaren lehen arautu zuen garabi zerbitzua, eta San Juanetarako abian jarri gura zuen. Garabiak jasotako autoak Gelma enpresaren orubean gordetzeko asmoa zuen Udalak. Baina Udalak Gelmari ingurumena kutsatzearen espedientea zabaldu ondoren, enpresak azaldu du ez diola oruberik utziko. Udalak espero du enpresarekin sortutako tirabirak konpondu eta irailerako zerbitzua gertu edukitzea.

Herri garbiketa

■ 73. zenb.

1990eko uztailaren 20an idatzi genuen...

Abenduaren 31n, Cespa enpresari Arrasateko garbiketaren adjudikazioa bukatuko zaio, eta laster lehiaketa egingo dute beste garbiketa enpresa bat kontratatzeko. Enpresa horrek kaleak, paperontziak, eskolak, merkata, auzoak eta putzu septikoak garbitu beharko ditu halabeharrez. Eta gura izanez gero, edukiontzien, erreken, kiroldegien, pintaden eta etxeetako hormen garbiketaz arduratzeko aukera izango du.

besteek esana



Edozein tokitan irakurtzeko moduko zenbakia osatu dugu, eta gaien aldetik, beti bezala, klasifikaezina da. Une honetan zenbaki bakoitzeko 500 ale saltzen ditugu eta 250 harpidedun dauzkagu. Gure helburua harpidetzak 500era igozea da, horrek azpiegiturak egonkortzeko aukera emango bailiguke. Horretaz gain, ditugun asmoen artean, guk egindako poesiak eta ipuinak musikatu egingo ditu Egusek, eta Durangoko Azokarako, aldiz, web orria eta Asier Serranok idatziriko narrazio liburua prest izatea espero dugu».

Diego Martiartu

PUTZ ALDIZKARIKO

ERREDARTABURUA

EUSKALDUNON EGUNKARIA

(2001eko uztailaren 14a)




ARRASATE PRESS

Argitaratzailea: ARKO (Arrasate Komunikabideak) Otalora kalea, 31 20.500 ARRASATE (Gipuzkoa)
Tel.: 943 71 25 11. Faxa: 943 71 23 89
E-mail: arrasatepress@euskalnet.net
Arrasate Irratia: 943 71 17 31

Laguntzaileak: Arrasateko Udala. **Zuzendaria:** Iker Barandiaran. **Kazetariak:** Ubane Madera, Leire Kortabarria eta Xabier Urzelai. **Publizitateak:** Arantza Lagunilla, Natalia Martinez eta Izaskun Bolinaga. (Tel.: 943 71 23 91/ 943 71 23 92). **Zuzentzailea:** Sergio Azkarate. **Administrazioa:** Agurtzane Gainzarain, Ane Berezibar (Tel.: 943 71 23 90). **Diseinua:** Alex Azkarate. **Asteburuetako berriemakia:** Lorea Agiriano. **Banaketa arduraduna:** Naiara Odrizola-AED. (Tel.: 943 77 12 28). © ARRASATE PRESS. **Tirada:** 6.500. **Logo-Gordailua:** 1124/88. **ISSN:** 0214-4654. Frankeo kontzertatua. **Inprimategia:** Gertu Koop. E. (Zubillaga, Oñati).

ARRASATE PRESSek ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanena eta iritzien erantzunkizunik.

 ARRASATE PRESS paper birziklatuan egiten da.



Arrasateko Udaleren laguntzaz



Gipuzkoako Foru Aldundiarren laguntzaz



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailaren laguntzaz

aurkibidea

• Lehen begiratuia	3	• Orain eta hemen	8/9	• Beheko tabernatik	24
• Asteko hitzorduak	4	• Txutxumutxuak	12/14	• Uhinetan barrena	25
• Herritarren berbak	5	• Asteko gaia	15/17	• Foto zaharra	26
• Astearen errepasoak	6	• Kirolak jokoan	20/21		
• Inkesta	7	• Kulturaren txokoa	22/23		



ZERBITZUAK

Eritotxeak

Arrasateko Eskualde-Ospit. 943 03 53 00
Iguaitorria 943 71 26 91
Santa Agedako Ospitalea
(gizonak) 943 79 39 00
(emakumeak) 943 79 44 11
Buru osasunerako zentroa 943 79 90 11

Larrialdiak

SOS Deiak 112
Gurutze Gorria 943 76 55 76
DYA 943 78 71 57

Anbulatorioak

Guardiako medikua 943 46 11 11
Astelehenetik
Barikura 17:00etatik 08:30era
Zapatuetan 14:00etatik 08:30era
asteburu eta
jai egunetan egun osoa

Arrasate

Astelehenetik
Barikura 08:00etatik 17:00etara
Zapatuetan 09:00etatik 14:00etara
• Txanda hartzeko: medikuntza
orokorra eta pediatria 943 03 52 50
• Espezialitateak 943 03 53 11
• Ikuskatzailea 943 03 52 52
• Kanpoko kontsultak: 943 03 53 11
Aretxabaleta 943 79 74 58
Aramaio 945 44 53 40

Anbulantziak

Gipuzkoako ambulantiak 943 45 87 44

Ertzaintza

Arrasate 943 79 71 99

Suhiltzaileak

Udal taldea 943 79 09 00
Udal taldeko suhiltzaile burua 943 79 20 72
Zubillagako Eskualde-Parkea 088

Matxurak

Urak (udal zerbitzua) 943 79 09 00
Argindarra (Iberduero) 943 12 01 62
Gasa 900 40 05 23
. 943 79 78 44
. 943 79 76 78

Garraioak

Taxiak 943 79 12 22
PESA 902 10 12 10

Hirugarren adinekoentzako zentroak

Iturbide Egoitza 943 79 72 11
Abaroa jubilatuen egoitza 943 79 81 57

Monterron liburutegia

Monterron 943 77 01 05

MEZAK

San Joan parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	09:00 (gaztelaniaz)
	11:00 meza nagusia (euskaraz)
	12:30 (elebiduna)

San Frantzisko eliza

Zapatua	10:00 (gaztelaniaz)
19:00 (elebiduna)	11:00 meza nagusia (euskaraz)
Domeka	12:30 (gaztelaniaz)
09:00 (euskaraz)	19:00 (gaztelaniaz)

Uribarri parrokia

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	11:30 (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

San Andres eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:00 (elebiduna)
	11:00 (euskaraz)
	12:00 (gaztelaniaz)
	13:00 (gaztelaniaz)

Santa Teresa eliza

Zapatua	Domeka
19:00 (elebiduna)	10:30 (gaztelaniaz)
	11:30 San Isidron (euskaraz)
	12:30 (gaztelaniaz)

Santamañako eliza

Jalegun bezpera eta zapatua	Domeka
19:00 (gaztelaniaz)	12:00 (gaztelaniaz)

udako ordutegiak

Udal zerbitzuek udako ordutegia izango dute aurrerantzean. Gazte Zerbitzua 10:00etatik 14:00etara eta, astelehen eta martitzene-tan, gainera, 17:00etatik 20:00etara izan-go da zabalik; Sexologia Zerbitzua 10:00eta-tik 13:00etara astelehen eta egunetan. Udal-

tzaingoa 10:00etatik 14:00etara izango da zabalik. Kultura etxeak 20:00etara aurre-ratu du uztaileko itxiera ordua. Musakolako kiroldegiak 08:30etik 21:30era arte zabal-duko ditu ateak, baina igerilekuak 09:30etik 20:30era arte izango dira zabalik.

kaleko antzerkia

Uztailaren 20an, egubakoitza, Gaitzerdi antzerki taldeak *Girobira* kale antzerkia

emango du. Monterron parkean izango da, 22:30ean.

folk jaialdia

Uztailaren 24an, nazioarteko folklore jaialdia izango da Monterron parkean, Gran Ballet Argentino taldearen eskutik, 22:30ean.

Eta sarrerak 1.000 pezetan erosi ahal izan-go dira, 800 pezetan Gazte Txartelarekin.

erakusketa

Luis Javier Arrieta margolari arrasatearraren erakusketak uztailaren 24ra bitartean izan-go da zabalik. Ordutegia honakoa da: lane-

gunetan 18:00etatik 20:00etara; zapatu eta jai egunetan, gainera, 12:00etatik 14:00eta-ra.

GAU ETA EGUNEKO FARMAZIAK

Egubakoitza, 20

- Azkoaga, Ferrerías

Zapatua, 21

- Azkoaga, Iturriotz

Domeka, 22

- Corcuera, Aranbarri

Astelehena, 23

- Zabala, Zarugalde

Martitzena, 24

- Azkoaga, Ferrerías

Eguaztena, 25

- Azkoaga, Iturriotz

Eguena, 26

- Corcuera, Aranbarri

zinema emanaldia

Udalak antolatutako uztaileko zinema emanaldien barne, hilaren 26an, eguena, Woody Allen-en *Acordes y Desacuer-*

dos filma emango da. Monterron parkean izango da saioa, 22:30ean. Sarrera doan.

M
ARENAZA

Altzariak
Diseinua
Apainketa

Bizkai, 1 • ARETXABAETA
Tel.: 943 79 08 07

HIES
BERRI

Tel.: 943 79 26 99



Herritarren berbak

Bizitza aurrera doa

Itziar Ezpeleta / Ama

Astero-astero iritzi desberdinak agertzen dira orri honetan. Gaur niri tokatu zait, nire kolaborazioa eskatu didate, nola ukatu? Zorretan nago, eta gainera nire buruarentzat erronka ederra da euskaraz idaztea.

Pasa den astean gazte bat hil zen, nire pentsamendua bere amarengana

joan da, berarekin identifikatu

naiz, zer esan... Ez dago

hitzik. (Barkatu, baina

nire lehenengo idatzia

zuretzat doa). Nahiz

eta momentu gogo-

rrak bizitzen ari zaren,

ziur nago zure etxe-

koen eta herriaren

berotasuna nabarituko

dituzula. Utzi zabalik zure

bihotza eta sentitu denon

maitasuna. Poliki-poliki zure

ezineko eta apurtutako bizitza apal-

tzen joango da.

Bizitza aurrera doa, behin ere. Ez duzu

ahaztuko zure semea, nahi ere ez! Zure

barruan beti eramango duzu. Niretzat ere

egun bakoitza erronka bat da, nik ere seme

bat galdu nuen-eta. Bere hutsunea senti-

tzen dut, baina poliki-poliki bizitzen ikas-

ten joan behar dut. Badakit ez dudala behin

ere gaingituko, horrekin bizi beharko naiz.

Baina nire pentsamenduan eta berari buruz

berba egiterakoan, sumatzen dut eta kont-

uratzen naiz heriotzak ez due-

la nire semearen maitasuna

akabatu, bera nirekin

bizi baita. Poliki-poliki

lehenengo egun

latzak apaltzen doaz

eta bizi izan genituen

une eta momentu onak

gogoratzen eta gozatz-

en hasiko gara. Gure

semea ez zen alferrik

jaio. Bizitza gozatu zuen,

eta guk berarekin.

Lehen esan bezala, bizitza aurre-

ra doa. Jakin dezagun aurrera jotzen, ez

gaude bakarrik, badaukagu zeinengatik

bizi, eta joandakoan maitasuna gure biho-

tzean gelditzen da. Zurekin bat eginda.

Itziar.

“Nire

pentsamenduan

eta berari buruz berba

egiterakoan, konturatzen

naiz heriotzak ez duela

nire semearen maitasuna

akabatu, bera nirekin

bizi baita”



aste gazte

■ INFORMAZIO TURISTIKOA

• Euskal Herriko eta mundu zabaleko informazio turistikoa dugu zure opor lekua ezagutzen joan zaitezten: foileto turistikoak, planoak, ostatua...

■ TXARTELAK

• Nazioarteko Gazte, Ikasle edo Aterpetxe Txartela eskuratzeko aukera duzu Arrasateko Gazte Bulegoan.

■ INTERRAIL

• Europan zehar trenez, eta merke, bidaiatzeko era eskaintzen dizu Interrail txartelak.

■ DIRU LAGUNTZAK

• Eusko Jaurlaritzaren eskutik, kooperatibetan bazkideak sartzeko laguntzak. Epea: uztailak 30.

• Eusko Jaurlaritzak bekak emango ditu euskal nekazaritza eta arrantza sektorean teknologoak eta ikertzaileak prestatzeko. Epea: uztailak 31.

■ LANA

• Gipuzkoako Foru Aldundiak deialdia egin du 261 lanpostu betetzeko. Epea: uztailak 24.

• Ibarako Udalako lorezaina behar da. Epea: uztailak 25.

• Aguraingo Udalak liburutegi laguntzailea behar du. Epea: uztailak 28.

• Arrasateko Udalak lanpostu publikoen eskaintza egin du: euskaltegiko irakaslea, osasun laguntzaile tekniko, liburutegian laguntzailea, sei udaltzain, administrari laguntzailea eta kiroldegiko mantenuko ofiziala. Epea: EAOn argitaratu zain.

Argibideak:

GAZTE ZERBITZUA

943 77 00 65

USTEAK USTE

Okupazioaren erreferentea

Urrundik datorkigu aste honetako gogoeta, Bartzelonako Gracia auzotik, hain zuzen ere. Jakingo duzue aste honetan bertan polizia espainiarrek hango bi etxe okupatutatik bizilagunak bota egin dituela eta, era berean, pertsona asko zauritu dituela. "Okupen" iturriek diotenez, gainera, gazte batek begia galdu du pilotada baten erruz. Etxeetako bat La Kasa de la Muntanya etxe ezaguna da, hamar urte luze baino gehiagoz gaztegunek izan dena. Poliziak ustez ez zeukan etxe adierazgarri horretatik jendea botatzeko inolako salaketarik ezta baimenik ere, baina bestea ixteko agindua zeukatela aprobetxatuz saiakera sutua egin zuen, gazte batzuek etxera berriz sartzea lortu badute ere. Gertaera penagarri horiek azaleratu dute, beste behin, globalizazioaren aurkako mugimenduenekin gertatzen den moduan, okupazioaren gaiak daukan garrantzi itzela eta gobernuek esperientzia horiekiko eta gaztegunek liberatuen inguruan dauzkaten aurreiritzi eta fobiak.

Iker Barandiaran.

astea bi hitzetan

■ Atentatuak gaitzesteko bilkurak

Eguaztenean eta astelehenean bilkura isilak egin zituzten herriko plazan. Juan Jose Ibarretxe lehendakariak egindako deiarrekin bat eginez, ETaren azkeneko atentatuak gaitzesteko egin ziren bilkurak. Hala, eguaztenean, Espainiako polizia baten, Luis Ortiz de la Rosaren, hilketa salatu zuten plazan elkartu zirenek. Bonba-autoa jarri zioten Espainiako poliziari. Astelehenean, berriz, Leitzako UPNko zinegotziaren, Jose Javier Muxikaren, eta Mikel Uribe ertzainaren hilketak salatu zituzten. UPNko zinegotziari lehergailua ipini zioten bere furgonetan eta ertzainari 19 tiro egin zizkieten.

■ Aldaketak MCCn

Aldaketa esanguratsua gertatu behar dira MCCn eta Mondragon Unibertsitatean datozen hilabeteotan. Besteak beste, Antonio Cancelok utzi egingo du MCCren presidentzia, eta Jesus Catania aretxabaletarrak hartuko du haren lekua. Bi hilabete geroago, otsailean, Jabier Retegik Unibertsitateko errektore kargua eta Humanitate Fakultateko dekanok kargua utziko ditu. Oraindik ez dute erabaki zeintzuk izango diren ordezkokoak. Eta Oñatiko Fakultateko dekanoa, Jesus Garmendia, erretiratu egingo da. Haren ordezkoa zein izango den ez dute oraindik erabaki.

■ Haur parkeak

Herriko zenbait haur par-


ketan lanak egingo ditu Udalak. Adibidez, Cordoba y Oro plazako haur parkea konpondu eta handitu egingo dute; San Josepeko eta Gorostizako haur parkeetan segurtasun zoria ipiniko dute eta Kurzetxikiko haur parkerako jostailu berriak erosiko dituzte. Sei milioi eta erdi pezeta inguru erabiliko dute hori guztia egiteko.

■ Elkarri

Egubakoitzean, Elkarri Seber Altuben izan zen Bake Konferentziaren aldeko sinadurak batzen. Guztira, orain arte, 42.000 sinadura batu dute. Eta hasierako helburua 40.000 sinadura batzea zen, hortaz, erraz gainditu dute aurreikusitakoa. Hemen, bi bider izan dira sinadurak biltzen.

■ Hogeita bost urte

Alkartu elkarteak 25 urte bete zituen astelehenean, eta hori ospatzeko, bazkideek hainbat ekitaldi prestatu zituzten astebururako. Egubakoitz arratsaldean, adibidez, luntxa egin zuten elkartearen eta Alkarturen 25 urteen laburpena jasotzen duen liburuxka banatu zuten bazkideen artean. Besteak beste, antzinako hainbat argazki eta dokumentu jasotzen ditu liburua. Horrez gain, zapatuan afaria egin zuten 100 bat bazkidek. Eta afalostean dantzaldia izan zuten.



UGARAN
jatetxea
Garagartza auzoa
Tel.: 943 79 76 58
ARRASATE

M
MEMESA
Industria hornidurak
Tel. 943 71 24 25

ML
ILE APAINDEGIA
Alfonso X jakintsua, 1 behea
(Grupo San Juan)
Tel.: 943 79 79 65

Nora ez zitzake juengo oporretan?

Batzuetan aurreiritzixek inportantiek izeten die oporretan nora juen elegiduterakuen



Ibai Garai.
(Langillie)

Gasteizera, ez dagoelako hondartzarik.



Beñat Osinaga
(Ikaslie)

Hiri haundi batera, behintzet, ez. Zarata haundixe egoten da.



Piedad Cordero
(Etxekoandrie)

Deserture, bero haundixe egitten dauelako eta ez dagoelako baiñue hartzerik.



Mari Karmen Iraola
(Etxekoandrie)

Mendi oso aldapatsu batera. Mendixe gustetan jat, baiñe aldapan gora gaizki ibiltten naz.



Markel Elorza
(Ikaslie)

Arazoren bat dagoen lekuren batera ez, behintzet; gerran egon ezker edo, adibidez, oin Murtzian dagoen arazue.



Markel Urrutia
(Ikaslie)

Frantziara iguel. Hango girue ez jat gustetan. Mendixek, seguruen, hobeto egongo die.



Cristina Calvo
(Langillie)

Kubara. Topiko larregi dauko. Oso politte dala esaten daue, baiñe neuri ez dust askorik tiraketan; mutilleri, bai. Mutillek bakarrik erakarten daue.



Elena Hernández
(Langillie)

Marokora. Jente oso berezixe dagoelako eta bero haundixe egingo dauelako.

ANCEPE
homologatutako diploma

DANKAR'T
ILE-APAINKETA ETA ESTETIKA ESKOLA

Irakaskuntza kalitatea
Lanaren ateak zabaltzen dizkizugu

EIBAR Tel.: 943 12 15 18 / 943 12 71 52
Matrikula epea zabalik



Gambrinus
garagardotegia

- Menua: bazkariak eta afariak
- Karta
- Errazioak

Otalora Lizentziatua, 40-42
Tel.: 943 79 53 32

Galdutako txakurrak Bergarara

Kalean agertzen diren txakurrak jaso eta zaintzeko zerbitzua adjudikatu du Udalak. Horrela, kalean agertzen diren txakurrak Bergarako Elurra txakurtegiara eramango dituzte. Orain arte, txakur horiek Udalaren biltegi batean gordetzen zituzten, baina legeak esaten duenez, udalek leku egokiak izan behar dituzte txakurrak jaso eta gordetzeko. Hori dela-eta erabaki du Udalak zerbitzu berria sortzea.

URTEBETERAKO

Esan bezala, Bergarako Elurra txakurtegiako arduratuko dira, behin Mondragoeko udaltzainen abisua jaso eta gero, txakurrak hara eraman eta zaintzeaz. Langile profesio-



sionalez gain, albaitaria ere badute, animaliak modu egokian zaintzeko. Horrela, txakur bat agertzen denean hara eramango dute, eta lehenik eta behin jabea bilatzen ahaleginduko dira, txakurraren txiparen bitartez. Jabea agertzen

badu, txakurra eman eta hari kobratuko zaio txakurrak txakurtegiara egindako gastuak. Txakurrak jaberik ez badu, berriz, bizileku egokia topatuko diote edo hil egingo dute, betiere legeari jarraituta.

Plaza bat eta hiru kale berri

Mondragoen plaza bat eta hiru kale berri sortuko dituzte hemendik gutxira. Hain justu, Cerrajera eta IFAM lantegiak zeuden lursailetan erakitzen ari diren etxebizitzak multzoak egitean. Eta Udalak plaza eta kale horiendako izeinak asmatu ditu. Horrela, Cerrajera lantegiaren lursailetan sortuko denari Zerrajera kalea ipiniko diote eta IFAMeko lursailetakoei, berriz, Zuberoka kalea eta Lapurdi kalea. Bestalde, IFAMeko lursailetan plaza egiteko asmoa dute; Legarre plaza ipiniko diote plazari.

Hori da, behintzat, Udaleko Kultura batzordeak osoko bilkurari egin dion proposamena. Edozelan ere, albiste idaztean bilkura egin barik zegoen, hortaz, ez dakigu udalbatzarrak proposamena onartu duen edo ez.

Oroitzapenerako argazkia

Martitzenean, Arrasate Musikaleko eskailerak bota zituzten. Ingurune horretan, Cerrajeran, etxebizitzak egin behar dituztela-eta, orain arte han egon diren eraikin guztiak bota egingo dituzte. Oraingo astean, herrian hain ezagun den Arrasate Musikal musika eskolako eskaileren txanda izan da. Horixe da, hain justu, argazkiak jasotzen duen ueña.



Argazkia: SEBASTIANA

Autoestimulantegia

Garagartza eta Gesalibarko emakumeendako Autoestimulantegia antolatu du Udalak. Urrian hasiko da, eta abendura bitartean 12 saio egingo dituzte. Pepa Bojo psikologo eta sexologoak emango ditu saioak Garagartzako alkatezako etxean. Matrikula doan da.

S. CARRASCAL S.L.

Guk egindakoak:

- Sukalde altzariak
- Armairu enpotratuak
- Trastelekurako armairuak

Fabrikaren erakusketa

Gipuzkoa etorbidea, 6 -1.a
Tel/Faxa: 943 79 01 82

Lore

- Lurrindegia • Kabina •
- Fotodepilazioa •

Olarte kalea, 10 • Tel.: 943 79 52 50



ERREFORMAX S.L.

Erakusketa eta biltegia:
Kale txiki, 3 behe (Musakola)
Tel eta faxa: 943 77 11 20

Metal aroztegia eta PVC

Leihoak eta itxierak

Egur aroztegia

Leihoak

- Ateak
- Armairu enpotratuak
- Armairu-fronteak
- Mota guztietako zoruak
- Lixatua eta bernizatua

Osagarriak

Neurrira egindako alfonbrak
Gortinak, mahai eta aukiak



Abiadura murrizteko banda gehiago



Udalak erabaki du automobila polikiago joan daitezen banda gehiago jartzea, eta oraingo astean horretan ibili da. Batetik, Zigorrolako Gipuzkoa etorbidean, San Isidro eliza parean dagoena osatu eta alderik alde ipiniko dute. Gauza bera egingo dute Eroskira bidean: orain dagoena luzatu, hain justu. Horrela errepidearen alde biak bete-ko ditu.

OTALORAN

Horrez gain, beste hiru banda ipiniko dituzte Otalora kalean. Horietako bat Muxibarrerako noranzkoan, Monterron parean, lehen zebra-bidea zegoen tokian. Beste biak, berriz, San Frantziskorako noranzkoan ipiniko dituzte; bata, kale horretan dagoen bideo klubaren parean eta bestea, herri autobusen geralekutik gertu, Ekaitz tabernaren parean, hain justu.

Kartoia batzeko zerbitzua

Orain dela sei hilabete, denda eta enpresa txikietan kartoia batzeko zerbitzua eskaintzen hasi zen Debagoieneko Mankomunitatea. Orain, denda eta enpresak zerbitzu horrekin pozik ote dauden jakin nahi du Mankomunitatea. Eta horretarako, dendaz denda inkesta egiten ari da. Kartoia batzeko zerbitzuaren gainean zein kezka duten edo zer bait gomen- datuko ote luketen galdetzen ari dira, adibidez. Izan ere, aurrera begira, ostalaritzako-

ei beira jasotzeko zerbitzua ipini nahi die.

Orain arte emaitza onak eman ditu atez ate kartoiak batzeko zerbitzuak. Urtarriletik ekainera arte, ia 220 kilo jaso da. Kontua da denda eta enpresa txikietan erraz pilatzen direla kartoiak eta kalean dauden edukiontziak ez direla erosoak, bizkor betetzen dira eta kasu batzuetan urruti samar egoten dira. Horregatik hasi zen Mankomunitatea kartoiak atez ate jasotzen.



Lizarralde Kirolak-en Tour lehiaketa mundiala

Mendi bizikleta bat irabazi nahi baduzu, azkar ibili!!

Tourreko lehenengo hiru sailkatuak eta mendiko sailkapeneko irabazlea zeintzuk izango diren badakizu, beheko kupoia bete eta uztailearen 23a baino lehen Arrasate Press-era bidali (Otalora Lizentziatua, 31).

Gainera, maillotak ere eskura ditzakezu. Jkusi Arrasate Irratiaren orria.

Irabazlearen izen-abizenak irailaren 7an kaleratuko ditugu Arrasate Pressen. Adi egon!!

Datu pertsonalak:

Izen-abizenak:

.....

Telefona:

Helbidea:

.....

Herria:

Tour lehiaketa

Sailkapen orokorreko lehen hirurak:

1.-

2.-

3.-

Mendiko irabazlea:

1.-

Maalako jaiak

Egitaraua

Uztailak
22

JADE

ILE APAINDEGIA
Maala, 21 • Tel.: 943 77 16 31

DOMEKA

08:00 Etxaflero jaurtiketa.

Goizean, San Frantziskon
meza Arrabalean hil diren
guztien oroimenez.

Jubilatu guztientzat Plus Ultra
tabernan luncha

17:00 Haur jolasak eta txokolatada.

19:00 Trikitixa.

21:00 Afaria, Estradetan.

22:30 Dantzaldia.

23:00 Zuzko erruberak.

**UNITED COLORS
OF BENETTON**
Maala, 13 • Tel.: 943 79 50 78

DEBA 10 urte zure
zerbitzura
GARAIA

Inmueble
eta finantza
agentzia
Maala, 11
943 77 13 02

ALTUNA
L
T
U
N
A
LURRINGEGIA
Maalako Errebala, 19
Tel.: 943 79 14 23


URREA
BITXITEGIA
Maalako Errebala, 8
Tel.: 943 77 02 23

**Plus Ultra
taberna**
Maalako Errebala, 17
ARRASATE
Tel. 943 79 20 57

**ORTOPEDIA
ARRASATE**
Maalako Errebala, 8
Tel. / faxa:
943 77 20 78


ELKORO
• Elektrizitatea
• Antenak
• TB, Bideo eta Hifi konponketak
Maalako Errebala, 29 • Tel.: 943 79 45 99 / 943 79 18 86


Casa Ceciaga
Arrasaten 1906. urtetik

Harresi kanpoko kale zaharraren ospakizunak

Domekan, Maria Magdalena eguna da, eta Mondragoen Maalako Errabaleko auzotarrak jaiak ospatuko dituzte. Goizeko 8etan hasiko dira, jendea esnatzeko etxafuego jaurtiketarekin. Eguerdipartean, berriz, hildako auzotarraren aldeko meza izango da San Frantzisko elizan. Era berean, erretiratuek auzotarraren omenaldia jasoko dute: 13:00etan luncha emango dute Plus Ultra tabernan. Arratsalde hasiera, berriz, umeendako izango da; 17:00etatik aurrera jolasak eta txokolatada izango dute. 19:00etan nagusiagoek hartuko dute txanda eta txikiteoa egingo dute. Eta 21:00etan auzotarrarendako afaria izango da Estrades-tan. Dantzarako eta musikarako aukera ere izango da, 22:30etik aurrera; eta tartean, suzko erruberak izango dira.

HARRESIZ KANPOKOA

Kalearen izenak esaten duen moduan, herriaren harresitik kanpo zegoen kalea da Maala; edozelan ere, horrek ez du esan gura kalea ez zenik Arrasateren zati. Are gehiago, herriaren historian pasabide garrantzitsuak izan dira Maalan eta seme-alaba esanguratsuak ere eman ditu Errabalak. Horietaiko bat Seber Altube izan zen.

Makina bat gauza egin, sortu eta indartu zituen arrasatear hark. Zaila litzateke laburpentxoia egitea. Oro har, gure artean ezaguna da goi mailako hizkuntzalaria izan zelako. Seber Altube Lertxundi 1879an jaio zen eta 1963an hil. Idazlea (euskaraz, gaztelaniaz eta frantsesez), filologoa, filosofoa, musikaria eta asmatzailea izan zen. 1920. urtetik aurrera Euskaltzaindiko euskaltzain osoa ere izan zen. Besteak beste, Mondragoeko



lehenengo txarangaren zuzendaria izan zen, Gernikako Musika Banda zuzendu zuen eta Gernikako Abesbatza sortu zuen. Erderismos, Literatura-Euskera eta Observaciones al Tratado de Morfología Vasca de R.M. de Azkue

izeneko liburuak idatzi zituen, besteak beste. Eta horrez gain, *Euskera*, *Eusko Jakintza*, *Eusko Ikaskuntzaren Deya*, *Eusko Gogoa* eta *Euskalerrriaren Alde* moduko aldizkarietan hamaika lan argitaratu zituen.

Concepción
Tamayo

DERMATOLOGOA

Laser tratamenduak

Maalako Errebala, 23-2A
Tel.: 943 77 05 57



Udalatx
Inmobiliaria

Etxeak, lokalak, ... saldu-erosi
Tasazioak
Fiskal Aholkularitza
Errentamenduak
Kontratuak

Maalako Errebala, 27 behea
943 79 59 99

ARANBURU
JOSTUNDEGIA

Urte askoko esperientzia
zuen esku

Maalako errebala, 23
ARRASATE
Tel.: 943 79 13 07



Bitxitegia
Erlojutegia

Maala 5 • Tel.: 943 79 19 25

OKENDO
KIROLAK

Maalako Errebala, 13 behea
Tel.: 943 79 92 76 • ARRASATE



Barceló Bidaiak

Ondo ibili jaietan!!
Maalako Errebala, 33 behea
Tel.: 943 79 70 11

KYMETZ

Kazuelatxoak,
ogitartekoak eta
pintxoak

Maala, 15
Tel.: 943 79 60 14
ARRASATE

Ondo pasatu
jaiak!!

Monte
taberna

Maalako Errebala, 11
Tel.: 943 79 20 56

HAUEK BAI BIZKORRAK!

Euriak goitik behera jardun zuen arren, Madalena auzoko jaiek ez zuten hutsik egin, ez eta beroien kale animazioak ere. Txaranga honek, adibidez, samur asko aurkitu zion konponbidea eguraldi eragozpenari: aterpean jo, eta kito!



EZKONBERRIAK KUBARA BIDEAN

Olga eta Luma hasi dira dagoeneko ezkonbidaia alde aurretik gozatzen; edo, behintzat, horretarako girotzen. Jakina, lehenengo ezkondu egin behar dira! Eta hori uztailaren 21ean izango da. Zorionak, bikote!

GORA BIHOTZAK!

Urtero legez, uztail hasieran Fagor Elektronikako langile hauek Pirinioetara joan ziren. Hemen dituzue Garmo Negro mendiaren 3.056 metroak igota! Ezkerretik eskumara, zutik, Iñaki Alberdi, Madina, Julio Martín, Roman González, Javier Larrañaga, Pello Zabaleta eta Ricardo Azurmendi; behean, Gaizka Oruna eta Oscar Unzurrunzaga. Datorren urtean hamargarren urtez egingo dute irteeratxo hori.





HERENSUGEAK IRRATIAN

Ez dute itxura beldurgaririk, ezta? Bada, sine-tsi edo ez, ume hauek Herensugeak ditugu. Horrela dauka izena Txatxilipurdiren udalekuetako argazkiko taldeak. Hirugarren eta lau-garren mailetako ikasleak dira, eta kontu-kontari etorri zizaizkigun Arrasate Irratira.

Loramendi kirolak

INTERSPORT

Zure oporretarako
material guztia

2.490

11.995
Goretex

9.995

2.750


5.995

9.995

HERRESUEKARRATIAN

HARA NOR LAPIKO ARTEAN!

Alkartu elkarteak 25. urteurrena beteko duela-eta, ospakizuna izan zuten joan den egubakoitzean; besteak beste, afari-merienda izan zuten, eta hara zein aurkitu genuen: udaletxe-ko leihatilatik irten, eta lapiko eta su artera joan zitzaigun Aizkora udal langile fin-fina.



ZULATU BEHAR EZ DENA, ZULATUTA

Joan den martitzenean, sekulako sustoa izan zuten argazkiko langile hauek: zulatzen eta zulatzen gustura zebiltzan, nonbait, eta zulatu behar ez zutena ere zulatuzuten: gas hodia. Inguruak hesitu eta guzti egin zituzten. Baina sustoa besterik ez zen izan.

TA-TXANNNN!

Ume ugari elkartu zen joan den egubakoitzean herriko plazan. Txatxilipurdiren udaleku irekietan ibiliak dira guztiak, eta horiek bukatu direla-eta, jaialditxoa egin zuten. Txan handiak magia saioa eskaini zuen, eta bai umeak baita aita-amak ere barre algaraka ibili ziren haren xelebrekeriekin.



Oporretan besteendako lanean

Oporretan gauza asko egin daitezkeen arren, gehienok, oporretara joateko aprobetxatzen dugu, gorputzari eta buruari atseden eman eta gustuko ditugun gauzak egiteko. Beste batzuek, berriz, lanean ematen dituzte oporrak. Eta ez edo zelako lanetan, gainera. Jeneralean, etxetik urrutira joan eta behartsuenei laguntzen ematen dituzte egunak. Egoera

gogorrek bizi dituzte, latzak askotan, baita arriskutsuak ere. Ohi baino erosotasun txikiagoa izaten dute eta, era berean, trukean ez dute ordainsaririk jasotzen. Elkartasuna da guztien ahotan entzuten den berba, lotu egiten zaituen zerbait dela. Lankide boluntario edo kooperanteak direla esaten dugu guk.

GIZAKIEN LURRA

Berrogei urte dela sortu zen Gizakien Lurra, Suitzako Lausana herrian. Orain dela lau urte iritsi zen Euskal Herrira eta Mondragoen bi urte eman ditu. Eva Egizabal arrasatearra 1999ko irailean hasi zen boluntario moduan. Eta erakundearen proiektu handiengan parte hartzen du: umeak ebakuntzak egitera ekartzen ditu, hain zuzen ere. Hau da, euren jaioterrietan osatu ezin dituzten gaitoxotasunak eta malformazioak dituzten umeak operatzera ekartzen dituzte eta hemen dauden artean zaintzea da GKE horren ardura. Horretarako, batetik, umeak hemen dauden artean etxean hartzen dituzten familiak daude, eta, bestetik, ospitalean dauden artean umeak zaintzen jarduten duten

boluntarioak. Boluntario horietako bat da Eva Bereziki, Mauritania, Madagaskar eta Guinea Conakritik ekartzen dituzte umeak: "Saiatzten gara ahalik eta gertuen dauden herriekin lan egiten". Horrez gain, oporrak dituztenean umeen jaioterrira joaten dira, ebakuntza egindako umeari jarraitzea egiteko. Evak Mauritanian joan nahi du aurtengo urrian, hango ume bat zaintzen jardun duela-eta, harengana. "Zazpi ume zaintzen ibili naiz: Mouna, Salka, Danielle, Veronica, Marianne, Ramatulaye eta Faumata". Horietatik, bereziki, bi ditu gogoan: Salka eta Mouna. "Salka nagusiagoa zen eta bestelako harremana izan genuen; bestela, Mouna ere oroitzen dut; oso kasu gogorra izan zen: bere eskuak pin-



tzak ziren eta hanke ez zuten inolako itxurarik; ebakuntza asko egin behar izan zioten...". Udaz gain, Evak urte osoa ematen du lanean, baina ez zaio

axola: "Lotu egiten zaituen. Gure kasuan umeekin bizi zara. Gogorra da, baina gogoko dut, eta ahal dudana arte segituko dut".



JAURLARITZA

Beste asko Administrazioaren bitartez joaten dira boluntario moduan. Horixe da Nagore Ojangurenen kasua. Topografoa da bera, eta uztailaren 6an hegazkina hartu eta Perura joan zen hiru hilabeterako. Iritsi berri bada

ere, hasierako esperientzia kontatu digu:

— Non zaude eta zein da zure lana?

- Cuzcon nago, Peruko herri turistikoenean. Lan lekua, berriz, Ama Guadalupekoaren Ongintza Elkarte da, Madrilgo abade baten ardurapean dago eta Euskal Herritik Mugarik Gabeko Arkitektuak izeneko gobernuz kanpoko erakundearekin egiten du lan. Besteak beste, bi eskola ditu ongintza elkarteak han: bata txikiendako eta beste bat lanbide heziketa egiteko. Horrez gain, jangela bat ere badute eta 600 bat umeri ematen diete jaten. Ez dira kaleko umeak, baina bai oso familia behartsuetakoak. Era berean, hainbat familia pribatuk umeak hartzen dituzte euren babespean. Era berean, boluntarioek hango komunitateetan egiten dute lan. Zehatz-mehatz, nik komunitate hauetan egiten dut lan. Topografiako lan batzuk behar dituzte; horrez gain, jangelan ere laguntzen dut eta eskolak ematen ditut.

— Zergatik eta zelan aukeratu zenuen Peru?

— Ez zen nire aukera izan. Profilen eta lekuen beharren arabera hara bidali gaituzte. Leku banaketa Eusko Jaurlaritzak egin zuen GKE bakoitzak eskatutakoaren arabera.

— Zenbat lagun zaudete han?

— Guztira 12 bat lagun etorri gara Perura; eta Cuzcora, Gasteizko beste neska bat eta biok.

— Hara heldu eta lehenengo inpresioa zuk uste zenuena izan da?

— Inoiz ez da izaten pentsatzen duzuna. Gauza batzuetan hobe eta bestetan txarragoa da. Edozelan ere, gu oso informatuta etorri ginen GKEekin izandako batzarrei esker.

— Zer egin behar da horrelako leku batera joateko?


— Eusko Jaurlaritzako Kooperante Gazteak izeneko programaren bitartez egiten da. Aukeraketa prozesua pasatu behar da eta GKEk eskatutako profila izanez gero, onartu egiten zaituzte.

— Zer behar da?

— Ikasketak behar dira. Gehienetan GKEk lanbideen arabera eskatzen du jendea. Edozelan ere, ez dago zertan ikasketak bukatuta izan behar.

— Horrelako zerbait egin gura baina zalantzan dagoen jendeari zer esango zenioke?

— Hau sensibilizazio lana dela. Egia esan, hiru hilabeteen ez da gauza handirik egiten. Hori bai, aukera ona da elkartasuna zer den ikasteko. Eta beti izango da gehiagok, lankide boluntariook, jasotzen duguna, guk eurei ematen dieguna baino.



Nikaraguako Diriamba herrian ari da lanean MSH.

MSH

Mundu Solidarioa Helburu gobernuz kanpoko erakundea gaztea da, pare bat urte besterik ez ditu. Mitch urakana zela-eta, nikaraguarrei laguntzeko prest zeuden lagun batzuk elkartu ziren eta GKE hori sortu zuten. Ikusi zuten Mitch urakana moduko hondamendi batek ustelkeria eta pobretasuna ekartzen dituela gerora. Horri aurre egiteko sortu zen MSH. Hiru egitasmo ditu: egitasmo produktiboak (eskulan lantegiak), hezkuntza egitasmoak (bekak) eta gizarte egitasmoak (ume gutxituekin egiten dute lan). Managuatik 45 kilometrorra dagoen Diriamba herrian ari dira lanean. Jose Manuel Corcuera GKE horretako kide da 99-00. urtetik hona, baita Mugarik Gabeko Ingeniaritza GKEko kidea ere 1996. urtea ezker. Bai erakunde batak zein besteak Diriamban egiten du lan. "Baina proiektu desberdinak ditugu; gu (MSH) orain bekekin eta ume gutxituekin ari gara lanean. Bekei dagokienez, Bigarren Hezkuntza ikasten ari diren gazte bat aukeratu eta beka ematen diote, ikasketak egiten jarraitu ahal izateko edo ikasketak bukatu ahal

izateko. Horretarako, han beste lankide bat dugu, Isabel; bera arduratzen da gaztea aukeratzear. Hamabi bat gazte ditugu eta irailan jarraituko dugu egitasmoarekin". Bitartean, ume gutxituekin ere ari dira lanean. "Umeak babespean hartzea da gure helburua. Hemen ere 12 bat umekin ari gara lanean".

Jose Manuel pare bat proiektu ikusi eta haien gaineko iritzia emateko helburuarekin joan zen Nikaraguarra. Hango egoera ikusi eta gero, herri behartsuetan aberastasuna lortzeko lan egin behar zela esan zuen hark: "Gobernuz kanpoko erakundearen arazo nagusia da guk laguntza ematen dugula eta horrek mendekotasuna sortzen duela. Mendekotasun hori ezabatzeko modu bakarra aberastasuna lortzea da". Eta orduetik hona ari da bere aisialdia besteei laguntzeko ematen. Hala eta guztiz ere, merezi due-la dio.

"Pertsonak ezagutzen dituzu, kulturak trukutzen dira, balio berriak ikasten dituzu, elkartasuna, jendearen eskerrona, pertsona nagusiekiko errespetua... Hemen galduta ditugun balioak, hain justu".

**KOMITE
INTERNAZIONALISTAK**

“Brigadetan lan egiten duten boluntarioak desberdinak dira”. Horixe adierazi digu Marcos Gabilondok, Komite Internazionalistak elkarteak kideak. “Eusko Jaurlaritzak edo Diputazioak bultzatzen dituen kooperazio motarekin konparatuz gero, gu ez gara joaten proiektu bat egitera edo ikuskatzera. Joaten garen lekura joanda ere, eurekin bizi, euren esperientziak ikusi eta eurei laguntzea da helburua”. Gehienetan, laguntza hori giza eskubideen defentsan oinarritzen da, ematen diren gehiegikerien salaketan, hain zuzen ere: paramilitarren ekintzak, injustiziak, hilketak...

Aurten, lau herrialdeetarako bidaiak antolatu dituzte: Nikaragua, Kuba, Mexiko eta Kolonia. Euskal Herriatik 120 lagun doaz. Ibarretik hiru, Bergararik, hain justu. Nikaraguara nekazariak laguntzera doaz eta Kubara jasaten ari diren blokeo bortitza salatzen. “Egoera desberdinean bizi dira bi herrialde horiek, lasaia. Ez dago paramilitarrik...” Horrelako lekuetan lan fisikoa egiten dute, hau da, etxebizitzak eraiki, eskolak margotu... Mexikon eta Kolonian, ostera, salatzea da euren lan nagusia. “Kolonian, adibidez, egoera oso gogorra da, sekulako

errepresioa dago: batetik polizia, bestetik gerrilla, eta erdian drogen trafikoa... Aurten, hegoaldera doaz. “Boliviako hegoaldean petroliodun lurraldeak daude eta lurjabe handiek bereganatu egin gura dituzte; gainera, nekazariak presionatzeko, blokeoa ezarri dute. Gu botikak, jakiak eta bestelakoak eramatera goaz”. Eta Mexikon indigenekin egiten dute lan, euren eskubideak defendatzen dituzte. “Hamar milioi indigena daukete Mexikon eta oso marjinalak bizi dira”.

TXIAPAS

Mexikoko Txiapas inguruan indigenak komunitateetan bizi dira. Horietako bat Realidad izenekoa da, eta han jardun du, bi urtez, Aitor Elortondo mondragoetarra. Euskal Herriko Txiapasen Aldeko Plataforma taldearekin joan zen lehenengo urtean, eta, burokrazia arazok eraginda, Komite Internazionalistak elkartearekin iaz. Joan den bakoitzean pare bat hilabete eman ditu han. Aurten ezin izango da joan, baina adierazi digu ahal bezain laster joango dela berriro (joan ahal izateko urte guztia ematen du dirua aurrezten eta opor barik, gero bi hilabete hartu ahal izateko). Hauxe da bere esperientziaren gainean kontatu diguna:

Aitor Elortondo

— **Salaketa lana egiten duzue...**

— Bai, zapatistek oso argi daukate zer behar duten eta beti begirale moduan eskatu izan dituzte. Gero, han egonda zerbait gehiago egitea gura izanez gero, norberaren esku dago. Iaz, adibidez, aroztegi bat egiten ibili ginen. Baina horiek gauza konkretuak izaten dira.

— **Eta zer da han begirale lana egitea?**

— Guretako tontakeria hutsa da, egiteko oso erraza, baina eurek biziki baloratzen dute. Egunean bi aldiz konboi militarra pasatzen da eta gure lana izaten zen konboiak egiten duenaren berri zehatza jasotzea: zelakoa den konboia (zein ibilgailu mota datozen, zenbat...) eta zer egiten duen. Hau da, eurek komunitateetatik pasatzeko eskubidea baino ez dute, ez beste ezertarako ere; eta guk hori zaindu beharra geneukan. Egia esan, gu egon ezean militarrek gura dutena egiten dute: sarraskiak...

— **Zelakoa da hango bizimodua?**

— Kartzela baten antzekoa. Oso garbi uzten dizute leku jakin batetik ezin zarela irten, 150 metro koadroko gune batetik-edo (segurtasunagatik). Eta, jakina, egun guztian zaudete komunitatean, militarrek kontrolatzeaz gain, norberak gura duena egiten du. Futbol zelaia, liburutegia eta bainatzekeo putzu bat dituzte.

— **Arazoak izan zenituen militarrekin, eta hango egoera ez da goxoa, hala eta guztiz ere, joatea merezi du?**

— Arazoak izan arren, hurrengo urtean berriro joan nintzen, eta leku berera. Hortaz, barruraino sartzen den zerbait da, zeharo lotzen zaitu. Aurten ezin naiz joan ez daukadalako dirurik, baina aurreztu bezain pronto banoa berriro ere.

— **Jendeari zer esango zenioke?**

— Animatzeko, duda barik. Joateko. Edo norbaitek ordu estra piloa izanez gero, niri emateko, ni joango naizela... (barreak)



Ferrerias kaleko jaiak

Uztailak
26

Egitaraua

09:00 Etxafleruak.

12:00 Txistularien kalejira.

17:00 Haur Jolasak.
Zaku lasterketa.
Txokolatada,...

19:00 Ikurriña jaso.
Txistularien kalejira.
Herri Poteoa.
7 eta 14 urte bitarteko
haurrentzako lasterketa.
Joku eta lehiaketak.

19:00 Kaleko hildakoen aldeko
meza
parrokian.

21:00 Herri afaria.

23:00 Musika, herriko talde batek
girotua.

24:00 Zaku lasterketa
eta helduentzako jolasak.



•ARTEA•

Eskulanak eta lientzoak
ENMARKAZIOAK

Laminak, Ispiluak, Margoak

Ferrerias, 11 • Tel.: 943 77 10 95
ARRASATE



Atsedena hartzeko
ordua iritsi da!

Neurriko armairuak

Ferrerias, 28 C
20500 Arrasate
Tel.: 943 79 76 92



OBRAK ETA BARRUKO
PROIEKTUAK

Ferrerias, 17
Tel. eta faxa: 943 79 03 17
ARRASATE

IRATI TABERNA

Ferrerias kalea • Tel.: 943 79 56 11 • ARRASATE

GORKA

ILE APAINDEGIA
LUZAPENAK

ORDUTEGIA:
Asteleheneran itxita.
Asteartetik ostiralera:
09:30 - 20:00
Larunbatetan:
08:00 - 14:30

SOLARIUMA

10 saio = 6.000 pezeta

Ferrerias, 35 ARRASATE Tel.: 943 77 13 78



2001-07-26

ferrerias-12



ferrerias-jaiak



arrasate



ONCE

"Ilusioak
banatzen"

Ferrerias, 12
Tel.: 943 71 24 66

CARMEN
Ile apaindegia
Solariuma

Ferrerias, 50
ARRASATE
Tel.: 943 79 03 63

Body piercing
eta
tatuajeak



AKER
Ferrerias, 28 behea, B
Tel.: 943 79 92 84



BASATI
TABERNA

PINTXUAK, BOKATAK ETA TRAGUAK

TEL. 943 711762

MERKEKILO

Oihalak
Gortinak

Ferrerias, 5
Tel.: 943 79 15 00



JMA nagusi Gasteiz Cup-en

JMAko talde bik Gasteiz-Cup txapelketa irabazi dute aurren, euren kategorian. Palacios entrenatzailearen mutirik fin ibili ziren aurreko astean Gasteizen jokatu zen txapelketan, eta azkenean, jokalaria bezain handiak diren bi kopa ekarri dituzte Arrasate aldera.

Bigarren urteko alebinek berdinketarekin hasi zuten txapelketa, Errioxa taldearen aurka 3 eta 3 egin zuten eta. Gero, irabazi baino ez zuten egin. Taldea hauek osatzen dute: zutik Palacios entrenatzailea, Markel, Pello, Iregi, Beñat, Alex eta Jokin; makurtuta Julen, Alvaro, Joseba, Oier, Romero eta Jon. Final-laurdenetan bost eta huts irabazi eta gero, finalerdietan Ariznabarra taldearen aurka 5 eta 3 nagusitu ziren. Finalean Rioja Alavesako gazteak izan zituzten aurrez aurre eta 3 eta 1 gailendu ziren etxeokak.

FINALEAN ARRASATEKO TALDE BI

JMAko lehen urteko alebinek ere lan bikaina egin zuten, eta euren mailan txapeldunak izan ziren. Finalean, ordea, Arrasateko beste talde baten aurka neurtu behar izan zituzten indarrak, Canas Esteban taldearen aurka, hain zuzen ere. Baina JMAko mutirik nagusitasuna erakutsi zuten eta 4 eta 1 gailendu ziren. Lehen urteko alebin taldea hauek osatzen dute: zutik Palacios entrenatzailea, Ivan, Arregi, Gorka, Aitor, Iker, Fernández; makurtuta Xabier, Ilzarbe, Jon, Markel, Iñigo eta Julen. Bi talde txapeldunak Arrasatera iritsi zirenean dagoeneko ohitura bilakatu dena egin zuten. San Frantziskoko biribilean dagoen iturrian ospatu zuten garai-pena. Ez da gutxiagorako, izan ere, nazioarteko txapelketa bat da eta. Zorionak bi taldeei!



Lehen mailako alebinak.



Bigarren mailako alebinak.

Hogeita lau ordu presoan alde

Arrasateko Gestorak eta Segi taldeak antolatuta, 24 orduko areto futbol txapelketa jokatu zen aurreko asteburuan. Txapelketa zapatuan hasi zen, eguerdiko 12etan, eta finala domeka eguerdian jokatu zen. Hogeita lau ordu horietan areto futbola eta euria izan ziren nagusi Zaldibarko pilotalekuan. Esan bezala, eguraldiak ez zien lana erraztu txapelketan parte hartu zuten 25 taldeei, baina goiz, eguerdi, arratsalde eta gau praka motzetan aritu ziren arrasatear asko. Herriko taldeez gain, Oñati, Gasteiz eta Hernaniko taldeak ere izan ziren, eta emakume talde bat ere animatu zen ordu txikietan areto futbolean

jokatzen. Bestalde, Zaldibarko Txapelketan joko gogorra izaten da nagusi batzuetan, eta asteburuko txapelketan ere batek baino gehiagok berobero amaitu zuten. Final-laurdenetan, Etxerat, HLKDB II, Usotz Potroak eta Puta txelaina taldeak kanporatuak izan ziren, eta finalerdietarako Alde Hemendik, Xokobuns, HLKDB III eta Gualtrapax taldeak sailkatu ziren. Finalerako txartela Gualtrapax, Fagor Industrialeko langileek osatutako taldeak, eta Alde Hemendik-ek eskuratu zuten. Domekan, goiz partean, ateri bazen ere, finala hasi orduko sekulako zaparrada egin zuten, eta partidua 6 eta 2 zenean Gualtra-



pax-en alde, partidua bertan behera uztea erabaki zuten. Asteburu luzea izan da askorendako, eta astelehena beste batzuetan baino gogorragoa.

Txapelketa hau estrainekoz jokatu da aurren, eta balorazioa positiboa izan bada ere, datorren urterako txosna eta guzti izango da.

Txartel bateratuarekin aurrera

Eguazten goizean Arrasate, Bergara, Oñati, Aretxabaleta eta Elgetako kirol zinegotzi eta kirol teknikariek batzarra egin zuten, eta txartel bateratuarekin aurrera jarraitzeko erabakia hartu zuten. Horrela, datorren urterako baliteke debagoiendarrek kiroldegi guztietarako txartel bakarra izatea. Maiatzean eta ekainean egitasmok aurrera egin dezakeela, eta bi hilabete hauetako balorazioa positiboa izan da. Maiatzean garbitzaileen grebak txartel bateratuaren proba pikutara bidaliko zuela bazirudien ere, Haritz Azkarraga Arrasateko Kirol zinegotziaren esanetan, grebak zerbitzu horren beharra azpimarratu baino ez du egin. Argi dago mugimendu handiena Arrasate eta Aretxabaleta arte-



an izan dela. Hain zuzen, maiatzean, garbitzaileek greba egin zutenean, 1.117 arrasatear joan ziren Aretxabaletara, eta ekainean, berriz, kanpoko igerilekua zabaltzerakoan, Aretxabaletako 195 lagun etorri dira Arrasatera. Emaitza horiek guztiak kontuan har-

tuta, Debagoieneko kirol teknikariek txartel bateratuarekin aurrera jarraitzeko proposamena egingo diote Mankomunitateari. Hortaz, gauzak ez badira asko aldatzen, datorren urtetik aurrera debagoiendarrek kirol txartel bakarra izan lezakete.

Ane Lopez de Bergara

Hogei urteko igerilari arrasatear honek emaitza bikainak lortu zituen aurreko astean Ourense jokatuako Espainiako Txapelketan, eta irailean Espainiako selekzioarekin Hungariara izango da. Ourense jokatuako Espainiako Txapelketan 1.500 eta 800 metroetako lasterketan bigarren postua eskuratu zuen, eta 400 metroetako lasterketan hirugarren izan zen. Emaitza horiei esker, irailaren 1etik 6ra bitartean Hungariara izango da Espainiako selekzioarekin.

Xakea

Arrasateko xake taldeak beste garaipen bat eskuratu zuen aurreko asteburuan. Txapelketa Mutrikun jokatu zen, eta Arrasate hamaika herriren onena izan zen. Talde gehienak gipuzkoarrak baziren ere, Bizkaikoren bat ere bazegoen, baita Castroko talde bat ere. Arrasatearrek bigarren urtez jarraian eskuratu dute txapelketa hori, eta euren esanetan, erraztasun handiz, gainera. Arrasateko xakelari gehienek deskantsua izango dute abuztuan, baina Josu Tornay Badalonako Nazioarteko Txapelketan izango da. Txapelketak astebete iraungo du, abuztuaren 2tik 9ra, eta Josu Tornayren helburua bost puntu, gutxienez, eskuratzea izango da, horrela Nazioarteko Sailkapenean sartzeko.

Euskadiko selekzioarekin brontzea

Mendizorrotzan urrea irabazi eta gero, Euskadiko selekzioarekin Kataluniara joateko txartela eskuratu zuen Jonathan Pérezek, eta aurreko asteburuan jokatu ziren Pirinioetako Jokotan atleta arrasatearrak brontzea erdietsi zuen. Txapelketa horretan hainbat autonomia erkidegok parte hartzen dute, eta aurrean, Euskadik Aragoi, Katalunia, Galizia, Valentzia, Kanariar Uharte, Asturias eta



Madriki egin behar izan die aurre, eta lortutako emaitzak ez dira bat ere txarrak izan. Real Sociedad taldeko Jonathan Pérez arrasatearra bosgarren izan zen, eta taldeka Euskadiko selekzioak brontzea irabazi zuen. Txapelketako protagonista nagusia haizea izan zen, eta horren ondorioz Jonathanek ezin izan zuen bere marka hobetu. Hala ere, oso pozik bueltatu zen arrasatearra.

UNZUETA

J A T E T X E A

- Eguneko menua
- Espezialitatea: Txuleta parrillan
- Karta

Zabola auzoa. ARAMAIO • Tel.: 945 44 50 95



Pando Errotuloak

Gipuzkoa etorbidea 6
(Legarre Pabiloia)
Tel.-Fax: 943 79 79 70

Argidun kartelak
Tbilgailuak
Stand-ak
Itsasgarriak
Biniloa
Señalizazioak
Lonak
Erliebedun hizkiak

Argentinako musika eta dantza

Datorren martitzenean, uztailaren 24an, beste herrialde batzuetako doinuak eta dantzak ikusteko aukera izango dugu; izan ere, egun horretan ospatuko da Arrasaten, urtero egiten den moduan, Nazioarteko Folklore Dantza Jaialdia. Aurten, Argentinako talde bat etorriko da, Gran Ballet Argentino, hain zuzen ere. Emanaldia Monterron parkean izango da, 22:30ean. Sarreak 1.000 pezetan salduko dituzte, 500 pezetan Gazte Txartelarekin.

ERRITMOA ETA UMOREA

Gran Ballet Argentino taldea Kordobatik (Argentina) dator.



Zuzendaria, Miguel Angel Tapia, musika eta dantza argentinarrean aditua da, eta horiek ahalik eta ondoen hedatzen saiatzen da, jendeari hango musikaren eta dantzaren

balio historiko eta kulturala erakusteko. Balet horren meriturik handienarikoa iraganekeo eszenak irudikatzekeo gaitasuna da. Erritmoa, antzezpena eta umorea erabiltzen

dituzte horretarako. Argentinako jaialdi inportanteenetan izan da Gran Ballet Argentino, eta hainbat sari eta aipamen berezi jaso ditu.

PORTUGALETETIK

Horiek izango dira, hortaz, Arrasaten ikusi eta entzun ahal izango ditugunak; urtero-urtero, herri bateko talde banak saioa egiten du Arrasaten, udalak Portugaleteko Elai-Alai taldearekin duen lankidetzaren bidez. Portugaleten orain dela 27 urtetik hona ospatzen da Nazioarteko Folklore Dantza Jaialdia, eta han aritzen den taldeetariko bat gureru etortzen da urtero

Jazza, Woody Allen-en begietatik



Uztaileko kaleko zinema emanaldi zikloa datorren astean bukatuko da, eta gaur egungo zuzendaririk ezagun eta polemikoenarikoa baten, Woody Allen-en, film bat aurkeztuko digu: *Acordes y Desacuerdos*. Uztailearen 26an izango da, Monterron parkean, 22:30ean. Betiko moduan, sarrera doan izango da.

JAZZ MUSIKA

Woody Allen-ek 1999an zuzendu zuen *Acordes y Desacuerdos*. Punta-puntako aktoreak batu zituen: Sean Penn, Samantha Morton, Uma Thurman eta Anthony LaPaglia, besteak beste. Istorioa 30eko hamarkadan girotua dago, jazz estiloa gorenean zegoenean. Sean Penn-ek Emmet Ray jazz gitarristarena egiten du. Pertsonaia horren inguruan beste hainbat agertuko dira: neskalaguna, maitaleak, musikariak, gangsterrak... eta zein baino zein abentura harriga-

rriago eta surrealistagoak gertatuko zaizkie, Allen-en filmetan ohikoa den legez.

FELLINI-RI OMENALDIA

Zinemagileak onartu du *Acorde y Desacuerdos* Federico Fellini-ren *La Strada* filmari omenaldia dela. *Zelig* filmean egin zuen moduan, new-yorkarrak dokumental faltsua egin du, Sidney Bechet jazz musikariaren bizitzan oinarrituta. Woody Allen zuzendaria oso estilo pertsonala du, eta oraingoan ere igartzen zaio joera hori; adibidez, John Waters zinemagileak rol labur bat du. Allen-ek Waters aukeratu zuen haren biboteagatik, 30eko hamarkadan erabiltzen zirenen antzekoa iruditu zitzaion-eta. Bestalde, musikaren inguruko istorioa den aldetik, alderdi hori ere oso garrantzitsua da filmean: soinu banda bikaina du. Dick Hayman-ek idatzi zuen, jazzaren klasikoetan inspiratuta.

AGURTZANE BARRUTIA (IDAZLEA)

«Ama bezala pentsatuta idatzi dut ipuina, eta ama baten helburuekin»

Herriko ikastetxe batetan irakasle da Agurtzane Barrutia 41 urteko mondra-goetarra. Baina beste jarduera bat ere badu: orain dela gutxitik hona, idazlea da. Orainsu kaleratu dio Elkarlanean argitaletxeak Zure Berrien Zain izeneko ipuina.

— **Zeini zuzenduta dago Zure Berrien Zain?**

— Irakurtzen ikasi berri duten edo ikasten ari diren umei. Horregatik, esaldi motzak idatzi ditut, eta, itxura aldetik, bi lagunek elkarri bidaltzen dizkioten eskutitzak eta postalak dira. Bestalde, ikastetxean jarduten dudanez, umeek egiten dituzten ekintzak ekarri ditut kontakizunera: udalekuak, baserri-eskolak, antzerkia...

— **Zertaz da zure ipuina?**

— Martin eta Elixabete izeneko bi lagun agertzen dira. Eskola berean ibiltzen ziren; baina Martin beste herri batera joan zen bizi izatera, eta aurrerantzean, eskutitzak idazten dizkiote elkarri. Horrez gain, ipuinean badago beste pertsonaia bat, Beñat, down-en sindromea duen mutikoa. Nik badut seme bat egoera horretan, eta berarekin pentsatzen idatzi dut. Izan ere, berak irakurtzen ikasten duenean, ipuinetan bera bezalako pertsonak aurki ditzan gura dut. Zentzu horretan, ama bezala pentsatuta idatzi dut ipuina, eta ama baten helburuekin.

— **Zer dela eta? Hutsunea igarri zenuen?**

— Bai. Hezkuntza Bereziko irakaslea naiz, eta ipuin asko irakurtzen ditut, baina orain arte ez dut sekula aurkitu minusbaliotasuna zuen pertsonaiaren bat azaltzen zen ipuinik. Nire iritziz, ume batendako funtsezkoa da kontakizunean agertzen diren pertsonaiekin bat egitea.

— **Ipuineko egoerak ere ondo zaindu dituzu.**

— Umeek bizi dituzten ohiko egoerak aurkeztu ditut; ikastetxeko bi ume irakurri dute ipuina, eta pertsonaiekin bat egin dutela esan didate, eurek egiten dituzten eta bizitzen dituzten kontuak agertzen direlako. Beñaten pertsonaia ere egoera horietan agertzen da, besteekin batera, normaltasun osoz. Nire asmoa izan da down-en sindromea duen mutiko hori gizartean guztiz txertatuta aurkeztea, eta ez bakarrik edo egoera berezietan.

— **Zelan ikusten duzu urritasunak dituztenen egoera?**

— Nire ustez, ikastetxeetan izaten da benetako integrazioa, eta hori ez da gizarteko beste arloetan islatzen. Batez ere, lanean eta jaietan igartzen dut normaltasun falta hori. Gustatuko litzaidake pertsona horiek euren gaitasunei egokitutako edozein lan edo ekintza egiten ikustea.

— **Luze eman dizu ipuina idazteak?**

— Ez. Iaz hasi nintzen, Aste Santuan, baina aisialdian baino ezin izan dut idatzi. Idaztea baino, argitaletxera bidaltzea egin zitzaidan gaitzago. Irakurri zutenean, esan zidaten down-en-en sindromea duen pertsonaia egin ziela inpresio handiena.

— **Ipuineko marrazkiak zuk aukeratu dituzu?**

— Bai. Argitaletxekoek hainbat marrazkilarri ipini zizkidaten aukeran, eta nik Jose Belmonteren lanak aukeratu nituen. Oso-osoz pozik nago haren lanarekin. Marrazki erreferenteak egin ditu, hau da, eskutitz bakoitza zeinena den eta zertaz ari den begirada baten jakin dezake irakurleak.

— **Idazten jarraitzeko asmorik bai?**

— Ate hori zabalik utziko dut, baina oraingoz ez dut halako asmorik, ez.



« Ipuinean badago pertsonaia bat down sindromea duena. Nik badut seme bat egoera horretan, eta berarekin pentsatzen idatzi dut »



Migel Angel Torres Eskiña tabernakue

Azken hamabi urtiotan Eskiña tabernan ikusi dogun arren, askoz be lehenago hasi zan ostalaritza lanetan. Familixatik datorkixo lan hori, eta gazte-gaztetatik, hamalau urtekin, hasi zan ofiziuoe ikesten. Txikiteue egitteko jende askok elegiduten dau taberna hori, lekue be ezin hobie da-eta.

-Esaidazu guzur bat.

Bixer edurre egingo dau.

-Amets bat.

Loterixie toketie.

-Amets txar bat.

Tabernie uraz betetie.

-Egin dozun azken bjaie.

Juen dan astien Lagako hondartzan izen nitzen.

-Txartel horixe, zeñei?

Gatxa da.

-Eta gorrix?

Gatxague, ez naz arbitru.

-Film bat? Liburu bat? Abeslari bat?

Chuck Norris-en edozein / *Las Cenizas de Angela* / Joaquin Sabina.

-Gustora egitten dozu zeure lana?

Bai.

-Tabernarixe izengo ez bazitze, ze izengo zitzake?

Asko bjajetan dan lan bat egittie gustauko litxakit.

-Animalixe izetekotan, zein?

Katue.

-Drogak legalizauko zittukie?

Batzuk bai.

-Eta prostituziñue?

Duda barik.

-Tabernetako txikiteue ala diskotekak?

Momentu bakotxien gauza bat, baiñe tabernetako girue gehixago gustetan jat.

-Etxeko zapatillek ala zapatak?

Bixek.

-Ze gustetan jatzu Mondragoetik?

Gaur egun ondo urbanizaute dagoela.

-Alkate izengo bazitze, ze hobetuko zeunke?

Egoera soziala, jeneralien.

-Eta lehendakari izengo bazitze?

Bardin.

-Bizio bat?

Ardau ona edatie eta, betibe, purotxue erretie.

-Ze deitxozo Arrasate Press Golekaria barruen sartziari?

Idea ona da.

-Ze gehittuko zeikixo Arrasate Pressei? Eta ze kenduko zeikixo?

Ez neuke ezer be aldatuko. Herriko barrixek nahiko ondo emuten dittu.

-Mendi bat?

Udalatx.



"Gaur egun, ardaun ona dau, baiñe oin dala bi urte, Riojako ardaunen prezioek gora egin euenien, tabernetako ardaunen kalidadiek behera egin euen"

-Bizitzera hiri batera juetekotan, nora?

Donostiara.

-Ezagutu dozun pertsona interesante bat.

Neure emaztie.

-Eta ezagutu nahiko zeunkeena?

Bob Dylan.

-Tranpan ibilttekotan norbaitekin, zeñekin?

Je, je. Ez da komeni izenik esatie.

-Telebisiñoko programa bat? Eta Irratikue?

Teleberri ikusten dot / *La movida deportiva*.

-Zertan gustauko zeunke dirue?

Biajjetan.

-Jasaten ez dozun zerbait.

Trafikue.

-Barra atzien edo aurrien?

Barra aurrien.

-Abuztuen tabernie zerraute egongo da?

Bai, egun batzuk bai.

-Nora juengo zara?

Emaztiaren herrira, deskantsetan.

-Sukaldie ala barrie nahixago?

Pintxuek diela eta, bixek egittie toketan jat, baiñe nahixago dot barrie.

-Mondragoen jentiek badaki konparaziñue egitten ardaun onaren eta ez hain onaren artien?

Danetik dago, batzuk asko dakixe, baiñe beste batzuk...


Su Ta Gar Arrasate Irratian

Martitzenean, goizeko 10:30ean

Oporrak hartu aurretik, 107.7ko *udako koktelerari* azken astinduak eman-go dizkiogu, punta-puntako osagaiekin, gainera! Datorren martitzenean, hilak 24, Su Ta Gar musika taldea izango da gurekin. Uztaileko azken asteburuan Arrasaten joko dute, Monterronen izango den kontzertu handian, hain zuzen ere. Kontzerturako gogoia pizteko eta Su Ta Gar taldearen berri zuzena jakiteko, Arrasate Irratira gonbidatu ditugu, martitzenean, goizeko 10,30etan.

Baina, esan bezalaxe, beste hainbat osagai ere izango ditu irratiko koktelerak; Amaia Martiarturekin EEB-Betara joango gara eta Luzien Etxezarretarekin, berriz, Euskal Herriko Iparraldea ezagutuko dugu.

Zatoz eta eragin iezaiozu udako koktelerari!



arrasate
irratia



Mendiko sailkapeneko maillota

Gaur bertan Tourreko erregulartasunari dagokion maillot berdea eman dugu, eta datorren martitzenean mendiko sailkapeneko maillota zozkatuko dugu, maillot zuria puntutxo gorriekin. Hortaz, astean heltzen diren kupoien artean bat hartu eta hori izango da maillot horren jabea.

Datorren martitzenean bukatuko dira irratiaeren emanaldiak

Arrasate Irratiaren emanaldiak uztailearen 24an etengo dira. Irratiari ere oporrak hartzeko ordua iritsi zaio, eta horregatik, martitzenean zuzeneko azken emanaldia eskainiko dugu.

Hala ere, ez ahaztu abuztuan irratia musika eskainiko duela egunez eta gauez. Horregatik, uztaileko azken egunetan musika aproposa prestatzen

arrituko gara, irratiko entzuleen belarriendako gozagarri izan dadin.

Irailean, bestalde, irratia emanaldiak emititzen hasiko da. Badakizue irratiaeren atek zabal-zabalik dituzuela, eta irratian saioaren bat egin edo parte hartu gura izanez gero, deitu beldur barik herriko irratira.




KONTRATAK
IRYROK S. L.
ERAIKUNTZAK

Meatzerreka, 5 bis • Apdo. 246
Tel.: 943 77 09 92 Faxa: 943 - 79 78 14
ARRASATE



MARKO-JARTZEAK
ALDEDI

Biteri, 8 • ARRASATE
Tel.: 943 79 13 05 • Faxa: 943 79 13 84



Alkartu elkarte gastronomikoa 25 urte bete ditu gure artean; eta guk, zilarrezko eztei horiek direla-eta, zelabaiteko omenalditxo eskaini nahi diogu oraingo asteko argazki zaharrenekin. Hain justu, Alkartu inauguratu zeneko unea jasotzen du.

1976. urtekoa da, uztailaren 16koa, orduantxe inauguratu zuten-eta elkarte. On Jose Luis Iñarra Orkaizagirre parrokoak bedeinkatu zuen. Hari laguntzen, berriz, orduan elkarteko kide zirenetariko batzuk daude. Ezkerretik hasita: Begoña Bedia (bazkide baten emaztea), Ignacio Apaolaza, Luis Mari Muruamendiaraz eta

Pedro Balanzategi. Iñarra parrokoa da hurrengoa eta haren ondokoa, berriz, Jose Luis Osinaga da, Alkartuko orduko presidentea; haren ondoan Jose Mari Zubillaga dago, eta bestea Jose Mari Urizar "Ametzu" da. "Ametzu"ren atzean Jose Luis Aranburuzabala "Benta Fría" dago, eta besoak gurutzatuta ditue-

na, berriz, Manolo Azkonaga da; niki gorriduna, Jesus Mari Artze. Izkina-izkinan Benjamin Artze dago eta atzealdekoa, atepean dagoena, Antonio Rodríguez da.

Argazkia eta berriemailea:
 Alkartu elkarte



LASAGABASTER

Zerkaosteta, 1 eta 2 • ARRASATE • Tel.: 943 79 27 27 / 943 79 13 55

A U S A R T



Ile apaindegi mistoa
Estetika zentroa - Txaro Carrizo

Iturriotz kalea, 24. Tel.: 943 77 30 60 / 943 77 21 58

Kalitateak mugarik ez



ARGI-PLASTIK

Leihoen fabrikazioa, PVC, aluminioa eta poliuretanoa
Zigorrola, 1 8. Pabilioia
Tel.: 943 77 11 30
ARRASATE

Kalitatea • Aukera zabala • Harreta pertsonala



20 urte zuen etxeetan. Eskerrikasko!!



iKER

SUKALDE ETA BAINU ALTZARIAK

FAGOR 